## ZELAIAK ETA LANDAREAK IZANGO DIRA ANDOAINGO ESKOLAKO AGENDA 2030 IKASTETXEETAKO AURTENGO LANKETAREN ARDATZ

Abiatu berri den 2021-2022 ikasturtean, aurtengo **Eskolako Agenda 2030** programari ekin diote Andoaingo lau ikastetxeak, haur hezkuntzatik hasita, lanbide hezkuntzaraino. Programa hori Andoaingo Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Sailak bultzatzen du, 2004tik ari da ekimen hori lantzen ikastetxeekin batera, eta Artelatz Servicios Ambientales SL enpresak garatzen du.

Eskolako Agenda 21 zena, iaz Eskolako Agenda 2030 bihurtu zen eta Nazio Batuetako Erakundeak adostutako Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetan oinarritzen da. Helburu hauek nagusiki mundu mailan pobrezia desagerrarazi, Planeta babestu eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko sortu dira. Mundua aldatzeko helburuak dira, inor atzean utzi gabe!

2020-2021 ikasturtean 15. helburua ezagutzen hasi ziren ikastalde ezberdinetan: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZIA. Helburu zabala izanik, basoetan oinarritu zen lanketa. Aurtengoan gai berria dute eskuartean: **Zelaiak, larreak eta landare itsutasuna.**

Zelaiak, belardiak eta larreak biodibertsitatez beteriko ekosistemak izateaz gain, belarraaltxor preziatua da Euskal Herriko baserrientzat. Beharrezkoak, guztion artean zaindu beharrekoak, baserritarrak, mendizaleak eta gainerako naturaren, eta zelaietakoakbereziki, erabiltzaileak. Landareen itsutasunaz hitz egiten dugunean, oro har espezieei buruz dugun ezjakintasuna aipatuko dugu. Zuhaitz-espezie batzuk ezagutzen ditugu, baina ez dugu larre eta zelaietan bizi diren landare eta loreen izenik ezagutzen. Izan ere, oharkabean pasatzen dira. Ba al zenekien Lurraren azalera kontinentalaren laurdena inguru belardiz estalita dagoela? Belardietako landarediak eta lurzoruak karbono- hustuleku gisa erabiltzen dira, klima aldaketaren aurka borrokatzen lagunduz.

Ikasturtean zehar, eskola komunitatea parte hartzen duten herritar orok gaiaren inguruanhausnartzeko aukera paregabea izango du. Hemendik, herritarrak belardi eta larreak behatzera animatzen ditugu, ikusgarritasuna ematera, ingurumen jasangarriago baten barruan merezi duten balioa emateko.

Andoain, 2021eko urriak 11

Iaz ikasleek diseinatutako logoa

ESKOLAKO AGENDA 2030

15 VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES

## PRADOS Y PASTIZALES CENTRARÁN ESTE CURSO LA AGENDA ESCOLAR 2030 DE ANDOAIN

En el curso 2021-2022 que acaba de ponerse en marcha, los cuatro centros escolares de Andoain, desde educación infantil hasta profesional, han iniciado su actividad anual en la **Agenda Escolar 2030**. Este programa está impulsado por el Dpto. De Urbanismo y Medio Ambiente del Ayuntamiento de Andoain, el cual viene trabajando en esta iniciativa conjunta con los centros escolares desde el año 2004, y desarrollado por Artelatz Servicios Ambientales S.L.

Lo que era Agenda 21 Escolar, el año pasado se convirtió en Agenda Escolar 2030 y se basa en los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible acordados por la Organización de las Naciones Unidas. Estos objetivos se han concebido principalmente para erradicar la pobreza a nivel mundial, proteger el Planeta y garantizar la prosperidad a todas las personas. Son objetivos que buscan cambiar el mundo isin dejar a nadie atrás!

En el curso 2020-2021 los diversos grupos escolares comenzaron a conocer el objetivo 15: VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES. Al ser éste un objetivo muy amplio, el trabajo a realizar se centró principalmente en los bosques. Este año se le va a dar otra perspectiva, se va a trabajar sobre **prados, pastizales y "ceguera" vegetal**.

Prados y pastizales no sólo son ecosistemas llenos de biodiversidad, sino que la hierba es un preciado tesoro para los caseríos de Euskal Herria. Algo necesario, a cuidar entre todos, tanto baserritarras como montañeros y demás usuarios de la naturaleza en general y de los campos en particular. Cuando hablemos de "ceguera" vegetal haremos referencia al desconocimiento que de las especies tenemos en general. Conocemos algunas especies arbóreas, pero desconocemos el nombre de las plantas y flores que habitan en los pastos y las praderas. De hecho, pasan desapercibidas. ¿Sabías que alrededor de la cuarta parte de la superficie continental de la Tierra está cubierta por praderas? La vegetación y los suelos de las praderas se utilizan como sumideros de carbono, contribuyendo a la lucha contra el cambio climático.

A lo largo del curso, a través de la comunidad escolar tendremos una oportunidad únicade reflexionar sobre el tema. Desde aquí, animamos a la población en general a observar los prados y pastizales, a darles visibilidad, con el objetivo de concederles el valor que se merecen dentro de un medio ambiental más sostenible.

Andoain, 11 de octubre de 2021

Logo diseñado el curso pasado por el alumnado participante